

# Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

## Jupiterren atmosferan misterioa

2009AN HUBBLE TELESKOPIOAK hartutako irudien arabera, Jupiterren hego hemisferioan dagoen eraztun arrea desagertu egin zen hilabete batzuetan. Horren ordez hainbat orban beltz azaldu zirenez, zientzialariek bertara erorritako meteoritoei egotzi zizkieten atmosferan gertatutako aldaketak.

Aurtengo ekainaren 3an, guregandik 770 milioi kilometrora dagoen planetan flash argitsu batzuk ikusi zituen Anthony Wesley astronomo

australiarrak bere teleskopioarekin. Handik hiru egunera, Hubblek Jupiterren argazki berriak atera zituen, eta osterera ere hego hemisferioa eraztun arrea desagertu egin dela ikusi ahal izan da horietan, baina oraingoan ez da beste inolako arrastorik agertu, ez orban beltzik ez deus ere. Zientzialariak harrিতa daude eta hainbat hipotesi hasi dira plazaratzen. Esaterako, eraztun arrearen gainean amoniakozko kristalak dituzten lainoak kokatu direla; baina ezer ere ez da ziurra. Ziurtatu daitekeen gauza bakarra da Jupiterreko atmosferan gertatzen diren fenomeno izugarriak ez ditugula ondo ezagutzen.

Jupiterren eta Lurraren tamainak konparatzeko balio digu irudi honek.



## Zenbat eta handiagoa izan, orduan eta denbora gehiago jaten?

ANIMALIAK ZENBAT ETA HANDIAGOAK IZAN orduan eta janari gehiago behar dutela gauza jakina da. Baina egungo elefanteak erreferentzia bezala hartzen baditugu, 80 tona pisatzen zuten dinosauroek zenbat denbora behar zuten egunero jateko? Aspaldi ari dira ikerlariak galde-rra horren erantzuna topatu nahian.

Egungo animaliek janaria xehatu egiten dute. Dinosaurio erraldoiek ere janaria xehatu izan balute, gutxienez eguneko 30 ordu behar izango zuten jateko. Hori posible ez denez, garbi dago dinosauroek irentsi egiten zutela janaria eta digestio berezia izango zutela. Burua ere, proportzioan, egungo animaliena baino txikiagoa zuten, ez baitzuten haginik behar, baina birika izugarriak zituzten euren gorputz erraldoiak arintasunez mugitu ahal izateko.



PREHISTORICPARK.BLOGSPOT.COM

**Babeslea: iametza Interaktiboa**

## Gizakion afrikar jatorriaz zalantzak

Washington-eko Unibertsitateko (St. Louis, AEB) Alan R. Templeton irakaslearen arabera, orain gutxi gizakiaren ADNaren eboluzioari buruz argitara emandako analisia ez omen da zuzena, eta beraz, hortik ondorioztatutako guztia berregin beharra dago. <http://ttiki.com/14518> (Gaztelaniaz)

## Gezurrezko begiak autodefentsa gisa

Costa Ricako tximeleta espezie bateko kideek, txoriengandik babestu ahal izateko, itxura beldurgarria ematen duten begi faltsuak garatzen dituzte. Hurbiletik ateratako argazkietan ondo ikus daitekeenez, tximeletek beste animalia baten itxura hartzen dute sistema honen bidez.

<http://ttiki.com/14519> (Frantsesez)

## Nola neurtu futbolarien kalitatea?

Chicagoko (AEB) Northwestern Unibertsitateko Luis Amaral ikerlariak garatu duen programa informatiko batek futbolarien ezaugarriak neurtzeko aukera emango du. Amaralek esan duenez, futboleko oso datu estatistiko gutxi biltzen da, AEBtan arrakasta duten talde-kirok profesionalentan ez bezala.

<http://ttiki.com/14520> (Frantsesez)

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

**iametza**

interaktiboa

[www.iametza.com](http://www.iametza.com)

T.943 37 67 16